

EKINN TALENT PROGRAMA

DONOSTIAKO ENPRESA ETA ERAKUNDEETAN PROIEKTU BERRITZAILEAK GARATZEKO KUALIFIKAZIOA DUTEN PROFILAK KONTRATATZEA SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA

ATARIKOA

Donostia Sustapenak estrategia eta kudeaketa eredu berri baterako trantsizioaren aldeko apustua sendotu egin du 2023an, hirian berrikuntzaren erreferente bihurtzeko eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren rola bere gain hartzeko.

Ahalegin horretan, laguntza ematen die pertsona, enpresa eta proiektuei, pertsonalizazioa, kalitatea eta foku estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten gainerako eragile publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko asmo argiarekin.

Berrikuntzaren bultzada eta hiriko enpresa proiektu berritzaileen hazkundera lehentasuna dira Donostia Sustapenarentzat, hiriaren garapenerako oinarria baitira.

Gaur egun, 15.600 enpresa daude Donostian, hau da, enpresa dentsitatea 80 enpresakoa da 1000 biztanle bakoitzeko. Espainiako hirugarren hiria da, beraz, Bartzelona eta Madrilen ondotik bakarrik, eta Valentzia, Malaga edo Bilboren moduko hiriburuen aurretik.

Donostiako TEAn (Jarduera Ekintzailearen Tasa) hazkunderaren testuinguruan, 2023an hiriak ezagutzen intentsiboak diren enpresen gehieneko kopurua ere lortu du (6.400 baino gehiago), eta dagoeneko hiriko BPGaren % 49 dira. Hala ere, AENA pandemia aurreko mailetan badago ere, % 7ra iritsita, eta horrek Espainiako batez bestekoaren gainetik jartzen du (% 6), esparru horretako ekosistema aurreratuenetatik eta EBko batez bestekotik (% 8,9) urrun jarraitzen du oraindik. Aldi berean, hiriak enpresa txikiak nagusi diren enpresa-sarea izaten jarraitzen du; izan ere, ehunaren % 72,5 1-2 langileko enpresak dira, eta % 91,7k 1-9 langile dituzte.

Erronka horiei erantzuteko, besteak beste, 2024an Donostiako Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoa indartu du, 5,8 milioi euroko zuzkidurarekin. Horrela, 970 pertsonak (% 54 emakumeak eta % 32 35 urtetik beherakoak) parte hartu dute ekintzaileei laguntzeko zerbitzuetan, bereziki Ekialdeko barrutian (% 15). Babestutako 229 proiektu ekintzaile berrietatik, % 60 oso berritzaileak dira, eta Donostiako Sustapenak ezagutzen eta biozientzietan intentsiboak diren zerbitzuen sektoreetara bideratutako estrategia islatzen dute.

Donostia Sustapenak hirian enpresa proiektu berriak sortzeko apustuarekin jarraitzen du, hazkunde ekonomikorako eta tokiko enplegua sortzeko motorra baitira.

Horregatik, Donostia Sustapenak zenbait programa eta neurri jarri ditu abian, alde batetik, enpresa ehun berritzailea bultzatu eta indartzeko, eta, bestetik, enpresa proiektu berritzaile

berriak garatzeko, betiere hiriaren hazkunde lehiakorra bere I+G ekosistemari esker bultzatzeko xedearekin.

Esparru horretan planteatu dira berrikuntzaren eta talentuaren garapenaren aldeko apustuan oinarritutako laguntza hauek, beren produktu, zerbitzu edo prozesuen artean ikerketatik eratorritako ezaguera edo merkatuaren ezaguera txertatzen duten eta teknologiaren garapen eta erabilera intentsiboan oinarritutako negozio estrategia bat duten Donostiako enpresa berritzaileek sustatutako enpresa proiektuei hazten laguntzeko.



XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza hauen xedea **goi mailako prestakuntza akademikoa** duten profesionalen kontratazioa sustatzea da, **enpresa proiektu berritzaileak eta I+G proiektuak garatzen ari diren tokiko erakundeetan**, beren ezaguera erakunde horientzat ezinbestekoa den jarduera berritzailearen zerbitzura jar dezaten.

Horrela, talentua mantendu eta erakarri nahi da ere, eta pertsona kualifikatuen ezaguera mailarekin bat datozen lan aukerak eskaini nahi dira. Tokiko enpleguan eragin zuzena izateaz gain, programa honekin aipatu profil kualifikatuen enplegarritasuna hobetzea da asmoa, horretarako pertsona horien karrera profesionala abiarazten eta/edo garatzen lagunduz.

Hori guztia hiriko ekoizpen sistema berritzailea sendotzeko helburuarekin, hartara balioa sortzeko gaitasuna areagotuta eta tokiko berrikuntzaren dinamika sozioekonomiko osoan inpaktu positiboa lortuta. Ondorioz, laguntza programa honek lortu nahi duena da hiriko enpresa ehun berritzailearen eskariak asebetetzea, giza kapitala finkatzen lagunduz, balio kate produktibo osoan eragin biderkatzailea lortzeko.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak 300.000,00 (HIRUREHUN MILA) euro bideratuko ditu programa honetara. Zenbateko hori aldatzea gerta liteke, Donostia Sustapenak egokitzen jotzen badu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduna izango da laguntzaren esleipenaren oinarria izan zen jarduera egingo duen pertsona edo esleipena legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere Oinarri hauetan eta, bereziki, laguntza mota bakoitzean xedatutako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen onuradunak pertsona fisiko edo juridikoak izan ahalko dira, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerrikoak, eta baita aurreko kasuetako nortasun juridikorik gabeko taldeak ere, behar bezala eratu badira ordenamendu juridikoaren arabera eta Oinarri hauetan xedatutakoa betetzen badute. Kanpo geldituko dira 2/2014 Foru Arauak, urtarilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 14. artikuluan definitzen dituen ondare sozietateak.

Oinarri hauetan ezarriko dira egokiak diren laguntzak eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko moduak. Edonola ere, Dirulaguntzen Lege Orokorren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, ondore hauetarako aplikagarria dela berariaz adierazita.

Ez zaie laguntzarik emango egoera hauetan dauden pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek zergen eta/edo Gizarte Segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak egunean ez dituztenak.
- Ebazpen irmo bidez jasotako zigorraren ondorioz dirulaguntzarik eta/edo laguntza publikorik jaso ezin dutenak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren bat dutenak, horren barne direla 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik zigorra jaso dutenak. Halaber, ezingo da laguntza jaso pertsona fisikoak edo onuradunak administrazio edo zigor arloko zigorra jaso badu sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakume eta gizonen berdintasunerako araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako epean zehar. Era berean, ezingo dute laguntza edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera indarreko berdintasun plan bat izan beharko luketen eta ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gora izanda, sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez dutenek, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorren bat badute.
- Aurretiaz emandako laguntzak erabat edo partzialki itzultzeke badituzte, itzuli beharreko zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez bada.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea izango dute dagoeneko Administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein Administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrez gain, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahalko ditu, interesdunak horri aurka egiten ez badio. Aurka egitekotan, berriz, ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragintasan aplikazioaren bidez, Administrazio Publiko eskudunei kontsultatuko die zuzenki jarraian adierazitako informazioa, prozedura honen ebazpenerako eta ordainketetarako:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Ekonomia Jardueren gainerako Zergaren (EJZ) historia.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko momentuan eta ordainketa bakoitza egiteko momentuan Udalaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren diru bilketarekiko egunean ez dauden onuradunek HAMAR (10) egun baliodun izango dituzte, jakinarazpena jasotzen dutenetik, obligazio hori bete izana egiaztatzeko.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Onuradunek deialdian parte hartu ahal izateko bete beharko dituzten baldintzak hauek dira:

- a) Jarduera ekonomiko bat irabazi asmoz garatzen duen pertsona fisikoa izatea edo, ordenamendu juridikoaren arabera, baliozko moduan eratu den pertsona juridikoa izatea edo nortasun fisiko zein juridikorik ez duen elkarte izatea eta merkatura zuzendutako ustiaketa ekonomikoa egitea.
- b) Lantoki Donostian izatea. Horrez gain, laguntzarekin kontratatuko den pertsonaren lantokia Donostian egon beharko da.
- c) Proiektu berritzaile edo I+G+B proiektuak eta negozio eredu eskalagarria aurkeztea. Proiektu horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) enpresa edo erakundeak izan beharko dira, jarraian definitutako moduan:
 - I) Enpresa berritzailea: memoria tekniko baten bidez frogatu ahal duena une honetan edo etorkizunean garatzen dituen produktu, zerbitzu edo prozesuak berriak edo sektoreko teknikaren egoerarekiko nabarmenki hobekak direla, teknologian oinarritzen direla eta/edo berrikuntza teknologikoaren bidez garatzen direla, eta porrot teknologiko edo industrialeko arrisku inplizitua dakartela.
 - II) Oinarri teknologikodun enpresa: teknologia sortzeko gaitasuna duena, bere jarduera ezaguera zientifiko eta teknologikoan oinarritzen duena, bere jardura kualifikazio handiko langile zientifiko edo teknologikoen eta negozioen garapenean adituak diren langileen lanean oinarritzen duena, teknologia propioen edo ezagueraren agenteek garatutako teknologien ustiaketa ekonomikoan datzan jardura duena, eta bere enpresa jarduerarekin merkaturatzeko produktu, zerbitzu edo prozesu berriak garatzen dituen.
 - III) ZTBES sareko kidea: I+G+B jardura garatzen duten eta ikerketa espezializatu eta bikaina egiten duten ikerketa, garapen eta berrikuntza erakundeen sarea, 109/2015 Dekretuak, ekainaren 23koak, arautzen duena.

Ezingo dira onuradun izan:

- a. Irabazi asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak, ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide badira salbu.
- b. % 25ean edo hortik gorako maila batean irabazi asmorik gabeko erakundeak, ondare sozietateen, elkargo profesionalen eta/edo sektore publikoko erakundeak mendekoak edo jabetzakoak diren erakundeak (sektore publikoko erakunde gisa ulertuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen

Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duenak, 3. artikuluan barne hartutakoak).

Ezohiko moduan, onuradun izan ahalko dira, atal honetan adierazitako kasuan egon arren, baldintza hauetako bat betetzen duten erakundeak:

- % 25etik gora bere mendeko edo jabetzako dituen erakundea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.
- Erakunde eskatzailea bera ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.

5. ARTIKULUA. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK

Proiektu bakoitzari bi EKINN Talent laguntza eman ahalko zaizkio gehienez, eta erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztuko du.

Salbuespen gisa, biozientzien sektorekoak diren erakundeentzat, Seic-Teknologikoak izan edo 2024ko EKINN+ izan, hiru izango dira gehieneko laguntzak. Erakunde horiei dagokienez, jarduera nagusia EJSN 2025 eta EJSN 2009 kode hauetan sailkatuta dutenak dira:

- Talde mailan (2 digitu): 62, 71, 72
- Maila espezifikoan (4 digitu): 32.50, 46.46, 86.22, 26.60

Bi laguntza modalitate aurkezten dira, kontratatuko den pertsonak jasoko duen gutxieneko urteko soldata gordinaren arabera:

- **A modalitatea: 20.000€-ko gutxieneko urteko soldata gordina**

Laguntzaren **10.000 €-ko** oinarrizko zenbatekoarekin, lanaldi osoko kontratu berriaren lehen sei hilabeteak diruz laguntzeko.

Laguntza honek oinarrizko zenbatekoarekiko areagotze hauek izan ahalko ditu:

- **2.000€** gehiago emakume bat kontratatzen bada.
- **2.000€** gehiago kontratazioaren momentuan 35 urtetik behera dituen pertsona bat kontratatzen bada.
- **2.000€** gehiago Donostiara itzuli den donostiar bat kontratatzen bada.
- **1.000€** gehiago doktorego aurretiko kontratu kasuan.

Areagotze horiek pilagarriak dira, baina, edozein kasutan ere, ez dute **13.000€-ko** zenbatekoa gaindituko.

- **B modalitatea: 30.000€-ko gutxieneko urteko soldata gordina**

Laguntzaren **15.000 €-ko** oinarrizko zenbatekoarekin, lanaldi osoko kontratu berriaren lehen sei hilabeteak diruz laguntzeko.

Laguntza honek oinarrizko zenbatekoarekiko areagotze hauek izan ahalko ditu:

- **2.000€ gehiago** emakume bat kontratatzen bada.
- **2.000€ gehiago** kontratazioaren momentuan 35 urtetik behera dituen pertsona bat kontratatzen bada.
- **2.000€ gehiago** Donostiara itzuli den donostiar bat kontratatzen bada.
- **1.000€** doktorego aurretiko kontratu kasuan.

Areagotze horiek pilagarriak dira, baina, edozein kasutan ere, ez dute **18.000€-ko** zenbatekoa gaindituko.

Erakunde eskatzaileak eskatu nahi duen laguntza modalitatea (A edo B) adieraziko du eskabidean. Era berean, proiektuari aplikatu nahi zaizkion areagotze guztiak adierazi beharko dira. Ez dira kontuan hartuko laguntzaren justifikazioan bakarrik aipatzen diren areagotzeak.

Diruz laguntzeko moduko gastuak Oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenki lotutakoak izango dira. Gastu horiek kontratuaren lehen sei hilabeteetakoak izango dira. Epeak lan kontratuaren hasiera datatik hasiko dira zenbatzen (epe hautagarria) eta enpresan etengabeko moduan emandako lehen sei hilabeteak bete arte luzatuko dira, ezinbesteko arrazoen ondorioz epe hautagarria doitu beharko balitz salbu.

6. ARTIKULUA. EKINN TALENT LAGUNTZAREN KONTRATAZIO BETEKIZUNAK

Pertsona kontratatuek gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Prestakuntza kualifikatua izatea, **goi mailako unibertsitate graduako titulazioa edo goi mailako heziketa zikloa**. Titulazio hori atzerrian eskuratu bada, zinpeko itzultzaile batek itzuli beharko du, baloratu ahal izateko, edo, bestela, tituluaren homologazioa entregatu ahalko da, tituluaren homologazioari buruzko 889/2022 Errege Dekretuaren arabera. Sektoreko edo jarduera eremuko espezifikak diren bestelako prestakuntzak ere prestakuntza kualifikatutzat jo daitezke. Kasu horietan, erakunde kontratatzaileak baliozkotu beharko du titulazioa, garatuko den proiekturako, Donostia Sustapenaren adostasunarekin.
- b) **Donostian erroldatuta egotea** kontratazioa hasi aurretik eta, gutxienez ere, lan harremana hasi aurreko egunetik. Erroldatze hori ezingo da egin erakunde kontratatzailearekin (onuraduna) lotura duen edozein pertsona fisikoren helbidean, 2/2014 Foru Arauak, urtarilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo erakunde kontratatzailearekin lotura duen beste edozein erakunderen helbidean, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, baldintza hau betetzeko ondoreetarako, ez dira kontuan

hartuko kontratatuko den pertsonak iraganean Donostian izandako erroldatzeak, erroldatzea etetearen arrazoiak edozein direla ere.

- c) **Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile gisa izena emanda** egotea. **Altan bitartekaritzarekin** egotea. Izen emate horren data lan harremana hasteko egunaren aurretikoa izan beharko da. Pertsona kontratatuak enpleguak edo langabeak izan ahalko dira lan harremana hasteko momentuan.
- d) Pertsona kontratatua onuradunaren edo, 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, onuradunari lotutako pertsonen ezkontidea, izatezko ezkontidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera) edo bigarren mailara arteko aurreko, ondorengo edo zehar ahaidea ez izatea, ahaidetasuna odolezko, ahaidetasunezko, izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoa edo adopziozkoa bada ere.
- e) Pertsona kontratatua Donostiara itzuli den donostiarra izatekotan bete beharreko baldintzak:
- e1) **Donostiarekin lotura** izatea, hau da, baldintza hauetako bat betetzea:
- Donostian jaioa izatea.
 - Donostian gutxienez ere 5 urtez erroldatuta egon izana.
 - Donostiako fakultate eta/edo unibertsitate eskola batean titulazio ofiziala lortu izana.
- e2) **Bizilekua** EAetik kanpo izatea, etengabeko moduan, lan kontratuaren hasiera data **aurreko 12 hilabeteetan**. Kalkulu horretarako ez da kontuan hartuko kontratua hasi aurreko hilabetea.
- e3) **EAEn lanean aritu ez izana** lan kontratuaren hasiera data **aurreko 12 hilabeteetan**.
- f) Doktoregai kontratu bat aurkezten bada, 99/2011 Errege Dekretuak, urtarrilaren 28koak, doktoretzako ikasketa ofizialak arautzen dituenak, eta ondorengo aldaketek ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu pertsona kontratatuak.

Lan kontratazioek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- g) Lan kontratuaren **hasiera 2025eko urtarrilaren 1aren eta 2026ko otsailaren 28aren** artean gertatzea, Donostia Sustapenak, modu arrazoituan, beste hasiera data bat berariaz baimentzen badu salbu.

Langilea kontratatzeko gehieneko epea **bi hilabetekoa izango da, laguntzaren ebazpen datatik aurrera**. 2025eko abenduaren 31 eta gero emandako ebazpenen kasuan izan ezik, orduan kontratatzeko epea 2026ko otsailaren 28an amaituko baita, Donostia Sustapenak, modu arrazoituan, beste data bat berariaz baimentzen badu salbu.

- h) Jasoko den soldata, bi alderdiek izenpetzen duten kontratuan (eurotan) islatuko dena, gutxienez honako hau izatea:

- Urtean 20.000 euroko soldata gordina, % 100eko lanaldiaren kasuan, A modalitatean;
- Urtean 30.000 euroko soldata gordina, % 100eko lanaldiaren kasuan, B modalitatean.

Aparteko kasuetan, lan kontratua deialdia argitaratu aurretik formalizatu bada eta adostutako soldata hori baino txikiagoa bada, Donostia Sustapenak pertsona kontratatuaaren soldata eguneratzeko aukera emango du, atzeraeraginez, eskatzen den urteko 20.000 € edo 30.000 €-ko gutxieneko soldata gordinera iristeko.

- i) Doktoregoaren baldintza bete nahi izatekotan, doktoratu aurreko kontratua izatea, 103/2019 Errege Dekretuak, martxoaren 1ekoak, eta 14/2011 Legeak, ekainaren 1ekoak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarenak, xedatutako moduan.
- j) Pertsona kontratatuek hasierako harrera jasotzea, proiektuaren araberakoa, erakunde onuradunean. Harrera plan horrek barne izango du proiektuaren jasangarritasunari buruzko informazio atal bat.
- k) Kontratua lanaldi osokoa izatea eta sei hilabeteko iraupena izatea gutxienez.
- l) Kontratazioa eta lanaldia epe osoan zehar mantendu beharko dira.
Lan harremana lehenengo bi hilabeteetan zehar etengo balitz, onuradunek hilabete bat izango dute beste pertsona bat kontratatzeke (Donostia Sustapenak, modu arrazoituan, beste epe bat berariaz baimentzen badu salbu). Kasu horretan, laguntza kontratazio berriari lotuko zaio eta horrek ere sei hilabeteko gutxieneko iraunaldia bete beharko du. Ordezkapen bakar bat onartuko da diruz lagundutako kontratazio bakoitzean. Kontratazioa sei hilabeteak igaro aurretik amaituko balitz, arrazoi objektiboak edo enpresaren borondatek kanpo dauden arrazoiak direla eta, eta proiektua beste baliabide batzuekin mantenduko balitz epe horretan zehar, modu eraginkorrean mantendu den kontratazio epeari dagokion zati proportzionala ordainduko da. Proiektua bertan behera uzten bada, laguntza ezetsiko da.

Kasu horretan, onuradunak Donostia Sustapenari jakinaraziko dio baja 15 egunen buruan gehienez.

Kontratu berria hilabete bateko epean jakinarazi beharko da gehienez, Gizarte Segurantzaren alta ematen zaionetik. Horren ondoren, Donostia Sustapenak dirulaguntza mantentzeko egin behar dituen izapideak azalduko dizkio enpresari.

IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO EZINTASUNAK

15 eguneko edo gehiagoko aldi baterako ezintasun kasuan (aurrerantzean, “iraupen luzeko aldi baterako ezintasuna”), diruz lagundutako kontratazio epeak eten egin direla ulertuko da, iraupen luzeko aldi baterako ezintasunak iraun bitartean, eta ezintasun egoera amaitzean berrabiaraziko dira.

Kontratu mugagabeak:

Kontratu mugagabeen kasuan, iraupen luzeko aldi baterako ezintasun aldiaren baliokidea den ordezkapen epe gehigarria justifikatu beharko da, diruz lagundutako gutxieneko epea bete ahal izateko. Diruz lagundutako kontratazio epearen amaiera eraginkorra ezin da 2026/10/31 baino beranduago izan.

Data hori iristean, hasierako iraupen luzeko aldi baterako ezintasun egoeraren edo antzeko baten ondorioz (edo ondoren errepika litezkeen bestelako egoeren ondorioz), kontratazioa ez bada iritsi eskatutako gutxieneko iraunaldira (sei hilabete), laguntzaren kalkulua egiteko ondoretarako, kontuan hartuko dira bakarrik iraupen luzeko aldi baterako ezintasuna izan ez duten eta laguntza emateko baldintzak betetzen dituzten kontratazio epeak.

Kasu horietan, laguntzaren zenbatekoa berriro kalkulatu eta proportzionalki murriztuko da, iraupen luzeko aldi baterako ezintasunaldiak kanpo utzita.

Behin-behineko kontratuak:

Behin-behineko kontratuen kasuan, amaierako dirulaguntza izandako lan denbora eraginkorrarekiko proportzionala izango da, iraupen luzeko aldi baterako ezintasunaldiak kontuan hartu gabe.

Kontratu mugagabeen zein behin-behineko kontratuen kasuan, kontratu harremana ordezkapen epe gehigarria bete aurretik amaitzen bada, ordezkapen aldia ere amaitutzat emango da, eta laguntzaren zenbatekoa berriro kalkulatu eta proportzionalki murriztuko da, zerbitzua modu eraginkorrean eman den aldiak bakarrik zenbatuz.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango kontratazio hauek:

- a) Laguntza eskatu ondoren egindako kontratuen luzapenak.
- b) Kontratuen baturak. Dirulaguntzaren laguntza bakoitzean kontratu bakarra onartuko da.
- c) Kontratazio aurretiko 24 hilabeteetan enpresa berean edo beste enpresa batean, bi enpresetan % 25eko partaidetza duten bazkide erkideak izatekotan, zerbitzuak eman dituzten pertsonekin egindako kontratazioak.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

EKINN Talent laguntzak ez dira bateragarriak izango estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek xede eta epe bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Laguntza horien azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako

Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak laguntza horiek emateko (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio), Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fiskaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, *de minimis* mugaren ondorioetarako.

7. ARTIKULUA. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak aurkezteko epea Oinarri hauek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzearen eta horien laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzearen biharamunean hasiko da eta baliabide ekonomikoak agortu arte egongo da indarrean (baliabideen agortzea Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) **edo, agortuko ez balira**, deialdia itxi arte, hau da, **2025eko urriaren 31ra arte**.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, funtsak gelditzen badira edo zuzkidura ekonomikoa zabaltzen bada eta Donostia Sustapenak egokitzen jotzen badu, eskabideak aurkezteko epea zabaltzeko ahalko da Oinarri hauen aldaketa bidez. Kasu horretan, egokiak diren kanaletan argitaratuko da.

Eskatu nahi diren laguntzak adina eskabide aurkeztuko dira, 5. artikuluan adierazitako gehieneko eskaera-kopurua kontuan hartuta.

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Bitarteko hauek erabili ezin dituzten hautagaiak harremanetan jarri beharko dira Donostia Sustapenarekin beste izapidetze moduren bat adosteko.

Eranskinak erabat bete beharko dira eta behar bezala sinatu beharko dira. Sinatu beharreko dokumentazioa digitalki sinatuko da.

Informazioa jasotzeko edo zalantzak argitzeko 943 482800 telefonora dei daiteke edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatz daiteke, gai hau adierazita: "EKINN Talent 2025 laguntzak"

Donostia Sustapenak eskabidea aurkeztu aurretiko arreta zerbitzua eskainiko du, zalantzak argitzeko. Zerbitzu hori posta elektronikoz eskatu beharko da adierazitako helbidean eta banakako edo taldeko saioetan eman ahalko da, Donostia Sustapenak erabakitzen duenaren eta proiektu edo laguntzen motaren arabera.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Dagokion eskabideari beharrezkoa den dokumentazio administratibo, tekniko eta ekonomiko guztia erantsiko zaio.

Eskabidea aurkezteko momentuan, proiektuari aplikatu nahi zaizkion areagotze guztiak adierazi beharko dira. Ez dira kontuan hartuko laguntzaren justifikazioan bakarrik aipatzen diren areagotzeak.

Dokumentazio administratiboa:

- a) **Eskabidearen eranskina.** Eranskin honetan eskatutako areagotzeak kontuan hartuko dira bakarrik.
- b) **“Bankuko datuak” eranskina:** laguntza eskatu duen pertsona edo erakundearenak, dagokion bankuaren zigiluarekin, edo banku dokumentu baliokidea.
- c) Pertsona fisikoa bada, **eskatzailearen NANaren** kopia.
- d) Pertsona juridikoa bada, **eskatzailearen IFKren** kopia eta, egokia bada, ahalordedunaren NANaren kopia.
- e) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (**ZTBES**) kideen kasuan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide izatea egiaztatu eta aitortzen duen Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasunerako sailburuordearen ebazpena.

Onuradunak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, bai eta aurkeztu diren gainerako dokumentuen egiazkotasunari dagokiona ere.

Interesdun batek, Donostia Sustapenaren laguntza programa batean parte hartzeko, dokumentu horietakoren bat aurkeztu badu aldez aurretik, ez du berriro aurkeztu beharko, baldin eta dokumentuak indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko momentuan Udal Zerga Bilketaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean ez dituzten erakundeek betebeharrak bete izana egiaztatu beharko dute. Donostia Sustapenak zuzenketa jakinarazpena bidaliko die helburu horretarako.

Memoria tekniko deskribatzailea (“Memoria teknikoa” eranskina):

Garatuko den proiektu berritzailea, kontratatuko den pertsonak egingo dituen lanak eta sortuko den enplegu aukera azaltzen dituen **memoria deskribatzailea**.

Enpresaren jarduerari eta egingo diren lanei buruzko informazioa:

- 1. Proiektuaren izena.
- 2. Eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak.
- 3. Enpresaren negozio planaren bideragarritasun ekonomikoa eta errentagarritasuna.
- 4. Proiektuaren eta helburuen azalpen laburra.

5. Aurrekariak eta proiektuaren justifikazioa.
6. Garatuko den proiektuaren azalpena eta gastuen justifikazioa. Proiektua deialdiaren helburuetara behar bezala egokitzen dela egiaztatzeko aukera ematen duten proiektuaren fase nagusiak eta garapena izango ditu barne.
7. Aukera teknologikoaren edo produktu berritzailearen azalpena eta proiektuaren merkatuko bideragarritasuna, berrikuntza maila egiaztatzeko.
8. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa eta espero diren emaitzak: helburuak, kronograma, adierazleak, garapen tekniko, komertzial eta finantzarioaren azalpena eta giza kapitalaren garapenaren azalpena. Proiektua kudeatzeko plana: proiektuaren kudeaketa bermatzeko mekanismoak, proiektuaren gobernantza azpikontrataziorik egotekotan, sortutako ezaguera, jabetza intelektuala, etab.
9. Lantaldearen deskribapena (barrukoa + kanpokoa), helburuak lortzeko behar diren langileak, ekipamenduak, finantzaketa eta abar zein mailara arte badiren egiaztatzeko modukoa
10. Proiektuaren inpaktua (ekonomikoa eta erakundearen gainekoa).

Sortuko den enplegu aukerari buruzko informazioa:

1. Eskatutako profilaren azalpena.
2. Sortu den enplegu aukera berri bakoitzaren azalpena:
 - ☐ Iraunaldia, lanaldi mota, harrera, jarraipena, barne garapena.
 - ☐ Aurreikusitako gutxi gorabeherako urteko soldata gordina.
 - ☐ Pertsona kontratatuaren gaitasunak garatzeko aukerak.
 - ☐ Lanpostuaren eta pertsona kontratatuaren proiektzioa eta jasagarritasuna.
 - ☐ Pertsonen leialtasuna areagotzen duten eta/edo lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten dituzten beste osagarri batzuk: soldata, prestakuntza espezializatua, barne sustapena, ordutegi malgutasuna, etab.
3. Pertsona kontratatu berri bakoitza eta horien eginkizunak gainbegiratuak dituen tutorearen izena.
4. Hautaketa prozesuaren egutegia, honako hau xehatuta:
 - ☐ Hautaketa prozesurako erreferentziako pertsona.
 - ☐ Eskaintza(k) argitaratzeko gutxi gorabeherako datak.
 - ☐ Jasotako curriculumak aztertzeak datak.
 - ☐ Elkarrizketak egiteko datak.
 - ☐ Hautaketa prozesua ixteko data.
 - ☐ Egingo diren kontratazioaren edo kontratazioen datuak.
5. Pertsona kontratatuarentzat aurreikusitako harrera plana, horren barne direla enpresaren funtzionamendua, enpresaren jardura eta proiektua bera, eta garapen jasagarriaren kontzeptu eta garrantzi ekologiko, ekonomiko eta sozialari buruzko sentsibilizazio atala.

Memoria erraz eta argi idatziko da, ulerterraza izan dadin, eta proiektuaren ulermena distorsionatzen duten teknizismoak saihestuko dira. 10. artikuluan adierazitako proposamenak baloratzeko irizpideak balioesteko aukera ematen duen informazio argia eskainiko du. 8 orrialdeko luzera gomendatzen da gehienez.

Onuradunak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, bai eta aurkeztu diren gainerako dokumentuen egiazkotasunari dagokiona ere.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak, dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen badu osatugabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko HAMAR (10) egun baliodunen epe barruan, eta ohartaraziko dio ere akatsa zuzendu ezean eskabidea kanpo geldituko dela, izapide gehigarririk gabe, horren inguruko ebazpena emanda. Donostia Sustapenak proiektuaren memoria teknikoari buruzko argibideak eska ditzake, egokitzen jotzen badu.

Zuzenketak posta elektronikoz jakinaraziko dira onuradunak harremanetarako emandako helbide elektronikoan. (Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web aplikazioan kontsultatu ahalko dira, espedientearen barruan.

Zuzenketak egiteko eskatu den dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskabidea aurkezteko erabili zen kanal bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan kontsultatu ahalko dira, espedientearen barruan.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Eskabideak sarrerako erregistro ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, esleitutako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskabideak kanpoko adituek ebaluatuko dituzte eta aditu horiek, horrez gain, proiektu eta gastu onartuen egikaritzearen jarraipena egin ahalko dute, oinarri arautzaile hauen aplikazioan ager litezkeen zantzak guztiak argitu eta interpretatzearekin batera.

Ezaugarri hauetakoren bat duten tokiko proiektuak izan beharko dira:

- Uneko merkatu edo gizartearekiko balio diferentziala izatea.
- Teknologia, ezaguera eta/edo berrikuntzaren erabilera intentsiboa.
- I+G proiektuak.
- Produktu eta/edo zerbitzu berri eta baliagarriak.
- Unekoak baino eraginkorragoak diren prozesu edo ereduak, eta gure hiriaren garapen sozioekonomikoan inpaktu handiagoa sortzen dutenak.
- Profil kualifikatuak barne dituzten eta balio erantsi handiko profesionalen profil berriak garatzen dituzten proiektuak.

Proiektuen ebaluazioa irizpide hauen arabera egingo da:

- Proiektu berritzailearen balorazio tekniko (70 puntu gehienez); **laguntza emateko 40 puntu lortu beharko dira gutxienez.**
- Sortuko den enplegu aukeraren balorazio tekniko (30 puntu gehienez); **laguntza emateko 20 puntu lortu beharko dira gutxienez.**

Proiektuen ebaluazioa irizpide hauen arabera egingo da:

1. Proiektuaren balorazio teknikoa	70
1.1 Proiektuaren diseinu eta kalitatea:	15
1.2. Proiektuaren bideragarritasun eta eraginkortasuna: helburuak, adierazleak, garapen tekniko, komertzial eta finantzarioaren azalpena eta giza kapitalaren azalpena.	30
1.3. Proiektuaren garapen jasagarria: jasagarritasun ekonomikoa, soziala eta/edo ingurumen jasagarritasuna kontuan hartuta.	5
1.4. Proiektuaren inpaktu potentziala: posizionamendu lehiakorra, nazioarteko proiektzioa, enplegu sorrera.	20
2. Sortutako enplegu proposamenaren balorazio teknikoa	30
2.1. Enplegu proposamenaren kalitatea: iraunaldia, harrera, jarraipena, barne garapena, kontratatutako pertsonaren gaitasunak garatzeko aukera.	15
2.2. Lanpostuaren eta pertsona kontratatuaren proiektzioa eta jasagarritasuna.	10
2.3. Beste neurri osagarri batzuk: soldata, prestakuntza espezializatua, barne sustapena, laneko malgutasuna, etab.	5
PUNTUAZIOA GUZTIRA	100

Donostia Sustapena 1. atalean gutxienerako puntuaziora iritsi ez diren eskatzaileekin harremanetan jarri ahalko da, baldin eta atal horretan 35 puntuko edo hortik gorako puntuazioa badute, proiektua behar bezala ulertu dela ziurtatzeko. Era berean, Donostia Sustapena 2. atalean gutxienerako puntuaziora iritsi ez diren eskatzaileekin harremanetan jarri ahalko da, baldin eta atal horretan 15 puntuko edo hortik gorako puntuazioa badute, proiektua behar bezala ulertu dela ziurtatzeko.

Ekinn+ 2023, Ekinn+ Osasun 2023 eta Ekinn+ 2024 programetan onartu diren proiektuak, behar bezala eratuta badaude, 2. puntuaren ebaluatuko dira bakarrik (sortuko den enplegu proposamenaren balorazio tekniko).

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea lau hilabetekoa izango da deialdia ixten denetik aurrera, epe horren barruan zenbatu gabe dokumentazio administratiboa zuzentzeko garaia. Laguntza emateko ebazpena ezarritako epe barruan emango ez balitz, horrek ez du esan nahiko laguntza eman denik.

Eskabidea ebazteko unean, Donostia Sustapenak aurkeztu den derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztu diren gainerako dokumentuak ez dira halabeharrez aztertuko laguntza ebaztean.

Laguntza ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da.

Ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie posta elektronikoz, eskabidearen eranskinean “jakinarazpenetarako helbide elektroniko” gisa adierazitako helbidean. Halaber, web aplikazioan ere aurkituko dira, espedientearen barruan.

Emandako ebazpenarekiko desadostasunik izatekotan, alegazioak aurkeztu ahalko dira, hilabete bateko epean gehienez, ebazpenaren datatik hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko dira interesdunak, alegazioak izapidetzeko prozeduren berri jasotzeko. Donostia Sustapenak erabakitakoa errespetatu beharko da eta bi alderdiak, egokia denean, Donostiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO GASTUAK ETA EKINN TALENT LAGUNTZA JUSTIFIKATU ETA ORDAINTZEA

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin lotura dutenak eta Oinarri hauetan ezarritako epe barruan egin direnak.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikagarria izango zaie, berariazko bidaltze bidez, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua.

Laguntzak bi alditan ordainduko dira.

Lehenengo ordainketa (emandako zenbatekoaren % 70) jarraian eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo da.

- **“Kontratazio datuak”** eranskina.
- **Lan kontratuaren** kopia, bi alderdiek sinatua eta orrialde guztiekin. Betekizun hauek egiaztatu beharko dira: iraunaldia, lanaldia, lan zentroa, beteko den lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- **Lan kontratuaren komunikazioa.**
- **Kontratatu den pertsonaren NAN / AIZren** kopia.
- **“Izena emateko epeen txostena”** dokumentua (“Alta bitartekaritzarekin” motako izen ematea egiaztatzen duena), Lanbidek emana. Dokumentuaren data kontratazio hasi ondorengoa izan beharko da.

- Enpresak kontratatutako pertsonaren **“Afiliatuaren lan bizitzaren txostena”**, kontratua hasi aurretiko 6 hilabeteak gutxienez barne hartzen dituena.
- Kontratatu den pertsonaren erroldatze ziurtagiria, Donostiako Udalak emana eta kontratazio egunaren ondorengoa, edo pertsona kontratatuak ziurtagiri hori eskatzeko Donostia Sustapenari emandako baimena. (“Kontratazio datuak” eranskinaren barne).
- Kontratatu den pertsonaren Curriculum Vitaea.
- Kontratatu den pertsonaren titulazio akademikoaren kopia.

LEHENENGO ORDAINKETA JASOTZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Laguntza ebatzi aurretik egindako kontratazioek hilabete bateko epea izango dute gehienez, ebazpenaren datatik aurrera, aipatu dokumentazioa aurkezteko.

Laguntza ebatzi ondoren egindako kontratazioek hilabete bateko epea izango dute gehienez, kontratazioaren datatik aurrera, aipatu dokumentazioa aurkezteko.

Bigarren ordainketa (gainerako % 30a) kontratazioaren amaierako justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da.

BIGARREN ORDAINKETA JASOTZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Lehenengo ordainketaren komunikazioaren jakinarazpenean adieraziko da amaierako justifikazioa aurkezteko epea:

- Diruz laguntzeko moduko kontratuaren aldia igaro ondoren, hau da, kontratua hasi eta sei hilabeteren buruan, **bi hilabeteko epea egongo da gehienez**.
- Komunikazio hori jasotzeko datan diruz laguntzeko moduko aldia amaituta egongo balitz, bi hilabeteko epea egongo da gehienez, komunikazio horren datatik hasita.

Onuradunak bigarren ordainketa jasotzeko aurkeztu beharko duen dokumentazioa hau da:

1. **Eranskina: “EKINN Talent_Justifikazioa”**.
2. **Amaierako memoria**, programari esker abian jarri den proiektua edo jarduera azaltzen duena (**“Amaierako memoria” eranskina**).
3. Pertsona kontratatuaren **“Afiliatuaren lan bizitzaren txostena”**, laguntzarekin bat datorren iraunaldian eta lanaldian zehar enpresan lanean aritu dela frogatzen duena.
4. Pertsona kontratatuaren kotizaziorako datuen txostena (**IDC**) - Besteren konturako langileak, justifikazio aldia barne hartzen duena.

Bi kasuetan ere, dokumentazioa bitarteko telematikoz aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak erabat bete beharko dira.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko momentuan Udal Zerga Bilketaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean ez dituzten erakundeek betebeharrak horiek bete izana egiaztatu beharko dute.

Justifikatzeko epea igarota dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, Donostia Sustapenak dokumentazio hori 15 egun naturalen buruan aurkezteko eskatu ahalko dio onuradunari, jakinarazpena jasotzen denetik hasita. Epe berri hori igarota dagokion dokumentazioa

aurkeztu ez bada, laguntzari uko egin diola eta, ondorioz, kobratzeko eskubidea galdu duela ulertuko da, edo, egokia denean, jasotako laguntzaren zatia itzuli beharko du.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek Dirulaguntzen Lege Organikoaren 14. artikuluan aurreikusitako betebeharrak orokorrak onartuko dituzte, ondore hauetarako berariaz aplikagarritzat joko baita, betebeharrak hauek barne hartuta (adibide moduan eta mugarik gabe):

- a) Donostia Sustapena eta Plus Europako Gizarte Funtsa EKINN Talent laguntzaren baterako finantzatzaile gisa aipatzea laguntza hori jaso duten proiektuen sustapen eta hedapenerako jarduketetan, horretarako erakundeen irudi instituzionala txertatuz, dagokien legendarekin batera, prestatzen diren komunikazio euskarrietan (webgunea, kartelak, posta elektronikoak, etab.).
- b) Pertsona kontratatuari jakinaraztea diruz lagundutako kontratazioak Donostia Sustapenak eta Plus Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketa jaso duela, lagundutako finantzaketari buruzko 13. artikuluan adierazitako moduan, eta beharrezkoak diren pertsona kontratatuaren datuen bilketan laguntzea, bai eta Donostia Sustapenak pertsona kontratatuarekin egin beharreko gainerako esku hartzeetan ere.
- c) Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzea pertsona kontratatuaren mikrodatuak biltzeko, orientazio profesionaleko galdetegia osatzeko eta, egokia denean, pertsona kontratatuari orientazio profesionalerako elkarriketa bat eskaintzea, lan orduetan.
- d) Proiektuaren baldintzak eta aurkeztutako zereginak errespetatu eta betetzea, bai eta kontratatutako pertsonak proiektuarekin eta zereginekin duen lotura ere, Donostia Sustapenaren berariazko baimenik izan ezean.
- e) Laguntza erabiltzea diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko.
- f) Donostia Sustapenak jasotako laguntzaren inguruan antola ditzakeen jardunaldietan (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.) parte hartzea.
- g) Diruz laguntzeko moduko gastuen frogagiriak aurkeztea, ezarritako moduan eta epe barruan.
- h) Jasotako laguntzen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketetan eskatu ahal diren bitartean eta, edozein kasutan ere, araudi aplikagarrian ezarritako epean zehar.
- i) Donostia Sustapenari jakinaraztea xede eta epe bererako jasotzen diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo bestelako baliabideak, eta baita laguntzak jasotzeko kontuan hartu diren inguruabar subjektibo zein objektibo guztien aldaketa guztiak ere, gehienez ere inguruabarra gertatu eta 15 egun naturalen buruan.
- j) Donostia Sustapenak, bere eginkizunen esparruan, eskatzen duen emandako laguntzei buruzko informazio guztia ematea.
- k) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea, bai eta laguntza mota bakoitzarenak ere.
- l) Proiektuaosatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztien kontabilitatea eramatea, eta kontabilitate liburuak behar bezala mantentzea, betebeharrak hori duenean.
- m) Egokia denean, Donostia Sustapenari laguntzea finantza kontrolerako jarduketetan eta egin ditzakeen egiaztapenetan, haren eskura jarrita eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- n) Laguntza jaso duen jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak edukitzea.
- o) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

- p) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen eta I+G+B agenteen direktorio digitaletan argitaratzeko onuradunaren harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logotipoa, marka eta onuradunak trafiko ekonomikoan baliatzen duen beste edozein ikur bereizgarri. Ondore horietarako, onuradunak elementu horien gaineko ustiapen lizentzia emango dio Donostia Sustapenari, adierazitako xedeetarako, eta Donostia Sustapenaren aldetiko lizentziaren erabilera baketsua bermatuko du.
- q) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehen-tasuna emanda) komunikazio euskarrietan (webgunea, gizarte sareak, posta elektronikoak, megafonia, etab), sustapen eta hedapen materialen argitalpenean, antolatzen diren jardunaldi eta ekitaldien hizkuntzan, etab. Erakunde eskatzaileek Donostiako Udaleko euskara zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko dute testuak itzuli eta zuzentzeko (itzulpenek gehienez ere 1.000 karaktere izango dituzte hilean eta, zuzenketek, 9.000 karaktere), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira. (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>)

13. ARTIKULUA. LAGUNDUTAKO FINANTZAKETA

EKINN Talent kontrataziorako laguntzek Europako Gizarte Funtsak % 40an lagundutako finantzaketa izango dute, EGIF+ Euskadi 2021-2027 Programa Operatiboaren esparruan, "EKINN TALENT" programarako.

14. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, diruaren legezko interesarekin batera, emandako zenbatekoak ordaindu diren momentutik aurrera, kasu hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez betetze larri eta/edo errepikatua. Ez betetze larri eta/edo errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetako betebeharrak bat edo gehiago ez betetzea, behin baino gehiagotan; emandako datuen, ziurtagirien, txostenen eta/edo dokumentazioaren faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako laguntza guztia edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren xedeetarako erabiltzea.
- Laguntzaren erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan, edo behar adina ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskatze jardueren aurka egitea, aitzakia jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, eta kontabilitate, erregistro edo dokumentuen kontserbazioaren arloetako betebeharra ez betetzea baldin eta horren ondorioz jasotako ekarpenei emandako erabilera egiaztatu ezin bada, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna egiaztatu ezin bada, edo administrazio edo erakunde publikoen zein erakunde pribatuen eskutik –nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak– xede bererako jaso diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak egiaztatu ezin badira.
- Jardueraren gehiegizko finantzazio kasuan, emandako gehiegizko zenbatekoa.

- Kontratua arrazoi objektiboen edo enplegatzaileari egoztekoak ez diren arrazoen ondorioz hutsaltzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren betekizunak bete eta momentu oro mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzea eskatu ahalko du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Halaber, ez betetze kasu larrietan, esaterako, datuen faltsutasuna edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea, Donostia Sustapenak ahalmena izango du emandako laguntza deuseztatze eta, kasu horretan, jasotako zenbateko guztiak itzultzea eskatzeko, bost aldiz jasotako zenbatekoaren baliokidea den zenbatekoa ordaintzea eskatzeaz gain.

Donostia Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen badu eta onuradunari jakinarazten badio, jarraian adierazitako baldintzetan, laguntza itzuli beharko da.

Itzulera laurogeita hamar egun naturaleko epe barruan egingo da, Donostia Sustapenak onuradunari burofax bidez jakinarazten dionetik artikuluko honetan aurreikusitako itzulera kasuren bat gertatu dela.

Era berean eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Donostia Sustapenak eskubidea izango du Donostia Sustapenak eskainitako beste edozein laguntza edo onuretan parte hartzea galarazteko, BI (2) URTETAN zehar, Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez duten edo fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dagoen datuen babeserako araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da zeuk emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa jardunda. Informazioa Donostia Sustapena, S.A. sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragilea den heinean.

Tratamenduaren xedea zure laguntza eskabidea izapidetu eta kudeatzea izango da.

Tratamenduaren legitimotasun oinarria izango da Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak (DBEO) 6.1.e) artikuluan xedatutakoa: tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta informazio hori ez emateak edo datu okerrak emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak, egokia denean, laguntzen finantzaketan parte hartzen duten eta/edo Donostia Sustapenarekin laguntzak kudeatzeko lankidetzan aritzen diren beste erakunde nazional edo nazioz gaindiko erakunde batzuei lagatzea gerta liteke, betiere lagapen hori beharrezkoa bada eta laguntzak kudeatzeko helburuetarako soilik.

Halaber, jakinarazten da laguntza emateak onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea ekarriko duela, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko baitira.

Ez da aurreikusi hirugarrenei zuzendutako datuen komunikazio gehigarririk, legezko betebeharririk izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziarik ere.

Tratamendu honen objektua diren datu pertsonalak gordeko dira jaso ziren xedea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar eta xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizun posibleak argitzeko beharrezkoa den denboran zehar. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa aplikagarria izango da.

Interesdunek atzipen, zuzenketa eta ezabaketa eskubideak baliatu ahalko dituzte, indarrean dagoen datuen babeserako araudian aurreikusitako gainerako eskubideekin batera, hala dagokienean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean, helbide honetan: Easo kalea 41, 20006 Donostia / San Sebastián.

Norberari dagozkion eskubideak baliatzean behar bezalako arreta ez jasotzekotan, erreklamazio bat aurkeztu ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik eta hautazko moduan, Donostiako Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko aukera izango du interesdunak: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onarpena.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira eta argitalpen horren hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek, eskabidea aurkeztean, erabat onartuko dituzte Oinarriak.

Erantzukizunak baztertzea

Onuraduna izango da laguntzaren objektua den jarduera egin aurretik edo ondoren izandako jarduketan ondorioz edo jardueraren ondorioz eragindako kalte pertsonal eta/edo materialen

erantzule bakarra eta Donostia Sustapena kontzeptu hauen gaineko erantzukizun orotatik libre utziko du.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Emandako laguntzak Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arautuko dira eta, modu osagarrian, DLOan eta DLOaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (aurrerantzean, DLOE) onartutako garapen erregelamenduan xedatutako arauen arabera, baina bakarrik DLOan ezarritako kudeaketa printzipioei eta bere 20. artikuluan aipatutako informazio printzipioei dagokienez; hori guztia aplikazio hori ezartzen duen DLOaren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera.

Gainerako kasuetan, aipatu DLO eta DLOE testuak aplikagarriak izango dira bakarrik Oinarri hauetan legezko testu horiek berariaz aipatzen diren alderdietarako.

Donostian, sinaduraren datan.

Ane Oyarbide Ochoa

Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzi ordezkaria.